

## BIZKAIAN TRIBUTU ITUNDUAK DIRELA-ETA BILDUTAKOA

### 2022KO OTSAILA

#### I. ZIFRA GLOBALAK

##### a) Bildutako zenbateko likido osoa

Otsailean bildutako zenbatekoak igoera nabarmena izan du aurreko urteko hil berean izandakoarekin alderatuta, urtarrileko epemuga sartu baita bildutako zenbatekoan. Izan ere, urtarrilaren 17ko 118/2022 Foru Aginduaren bidez, urtarrilaren 25etik 31ra luzatu zen aurkezteko epea, pandemia-egoerak bere horretan jarraitzen zuelako eta horrek zerga-betebeharrak betetzeari eragiten ziolako. Bestalde, nabarmena da elektrizitatearen fiskalitatearekin lotutako neurrien inpaktua; neurriok eragina izan dute energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga dela-eta 2021eko laugarren hiruhilekoan bildutako zenbatekoan, bai eta elektrizitatearen gaineko zergan bildutakoan ere.

Zerga itunduen hileko bilketan jasotako zifretan homogeneotasunik ez dagoela ziurtatu da bi ekitaldietan. Baina hori neutralizaturik geratu da metatutako emaitzan: otsailean % 13,2ko igoera izan du, aurreko urtearen aldean, 1.819,2 milioi eurora iritsita; 2021ean, berriz, 1.606,5 milioikoa izan zen. Horrek diru-bilketa likidoan 212,7 milioiko alde positiboa dakar; gehikuntza hori ekitaldirako aurrekontuaren guztizko kopuruaren (8.386,9 milioi euro) % 21,7 da

Erreferentzia-aldian Estatuarekin doikuntzarik egin behar ez denez (apirilera arte foru-aldundien artean ere ez dira lehen doikuntzak egiten), gestio propioagatik bildutako kopurua ehuneko berean gehitu da, hots, % 13,2n.

OTSAILAREN BUKAERAN METATUTAKO DIRU-BILKETA				
mila eurotan	2022	2021	diferen.	%
Diru-bilketa likidoa	1.819.177,4	1.606.513,5	212.663,8	13,2
FFAAen barneko doikuntza guztira	0,0	0,0	0,0	
Berezko kudeaketaren tributu itunduak	1.819.177,4	1.606.513,5	212.663,8	13,2
Guztizko doikuntza Estatuarekin	0,0	0,0	0,0	
<b>TRIBUTU ITUNDUAK GUZTIRA</b>	<b>1.819.177,4</b>	<b>1.606.513,5</b>	<b>212.663,8</b>	<b>13,2</b>
Gauzatze-ehunekoa	%21,7	%21,9		



## b) Gestio propioaren ondorioz bildutako zenbateko gordina eta itzulitako kopuruak

Gestio propioko zerga itunduen bidez bildutako kopuru gordina 1.982,6 milioi euro izan da, urtebete lehenago lortutakoa baino % 15,4 gehiago; izan ere, orduan 1.717,3 milioi bildu ziren. Bestalde, itzulitako kopuruetan ere gehikuntza gertatu da (% 47,5); iaz 110,8 milioi euro itzuli ziren; aurten, berriz, 163,4 milioi. Inguruabar bi horien ondorioz, diru-bilketa likidoak % 13,2ko gehikuntza izan du.

OTSAILAREN BUKAERAN METATUTAKO DIRU-BILKETA				
mila eurotan	2022	2021	diferen.	%
Diru-bilketa gordina	1.982.552,5	1.717.290,4	265.262,1	15,4
Itzulitakoak	-163.375,1	-110.776,9	-52.598,2	47,5
Berezko kudeaketaren tributu itunduak	1.819.177,4	1.606.513,5	212.663,8	13,2

## II. KONTZCEPTU NAGUSIEN BILAKAERA

Zuzeneko zergen zioz bildutako kopuru likidoak % 0,1eko igoera izan du aurreko ekitaldiarekin alderatuta; 822,5 milioi euro, guztira. Igoerak diru-bilketa gordinean (%1,4) eta itzulitako kopuruetan izan dira (aurreko urtean 7,0 milioi euro, aurten 17,7 milioi). Zeharkako tributuetan, berriz, 987,3 milioi euro bildu dira, hau da, % 27,0 gehiago. Igoera bildutako zenbateko gordinean (% 28,5) zein itzulitako kopuruetan (% 39,5) jazo da. Tasak eta beste diru-sarrera batzuk % 21,4 hazi dira; zehazki, 9,4 milioi euro bildu dira aurten, aurreko ekitaldian, berriz, 7,7 milioi.

OTSAILAREN TRIBUTU ITUNDUEN DIRU-BILKETA									
mila eurotan	Diru-bilketa gordina			Itzulitakoak			Diru-bilketa likidoa		
	2022	2021	diferen.	2022	2021	%	2022	2021	%
Zuzeneko zergak	840.190,3	828.642,8	1,4	17.660,4	7.032,3	151,1	822.529,9	821.610,5	0,1
PFEZa	779.460,6	753.287,2	3,5	5.626,3	4.806,2	17,1	773.834,3	748.481,0	3,4
Sozietateen gaineko zerga	44.196,0	53.140,4	-16,8	1.370,9	785,6	74,5	42.825,2	52.354,8	-18,2
Gainerako zuzeneko zergak	16.533,7	22.215,3	-25,6	10.663,3	1.440,5	640,3	5.870,4	20.774,8	-71,7
Zeharkako zergak	1.131.683,7	880.696,1	28,5	144.392,5	103.498,3	39,5	987.291,2	777.197,8	27,0
BEZa	871.896,0	629.750,2	38,5	144.175,0	102.478,7	40,7	727.721,1	527.271,5	38,0
BEZa barneko doikuntza				0,0	0,0		0,0	0,0	0,0
Zerga bereziak	228.330,7	225.337,2	1,3	134,6	788,8	-82,9	228.196,0	224.548,5	1,6
Gainerako zeharkako zergak	31.457,0	25.608,7	22,8	82,9	230,9	-64,1	31.374,1	25.377,8	23,6
Tasak eta Bestelako Sarrerak	10.678,4	7.951,5	34,3	1.322,2	246,2	436,9	9.356,3	7.705,2	21,4
<b>BEREZKO KUDEAKETA GUZTIRA</b>	<b>1.982.552,5</b>	<b>1.717.290,4</b>	<b>15,4</b>	<b>163.375,1</b>	<b>110.776,9</b>	<b>47,5</b>	<b>1.819.177,4</b>	<b>1.606.513,5</b>	<b>13,2</b>
Doikuntzak Estatuarekin	0,0	0,0		0,0	0,0		0,0	0,0	
Doikuntzak BEZa	0,0	0,0		0,0	0,0		0,0	0,0	
Doikuntzak Zerga bereziak	0,0	0,0		0,0	0,0		0,0	0,0	0,0
<b>TRIBUTU ITUNDUAK GUZTIRA</b>	<b>1.982.552,5</b>	<b>1.717.290,4</b>	<b>15,4</b>	<b>163.375,1</b>	<b>110.776,9</b>	<b>47,5</b>	<b>1.819.177,4</b>	<b>1.606.513,5</b>	<b>13,2</b>



#### a) PFEZa

lazko otsailarekin konparatuta, PFEZaren diru-bilketa likidoak % 3,4n egin du gora, bai bildutako kopuru gordinak % 3,5eko gorakada izan duelako, bai itzultako kopuruak 4,8 milioitik 5,6 milioira gehitu direlako (% 17,1).

Zergaren osagaiak bilakaera ezberdina izan dute. Hala, gutxitu egin dira kapital higigarriaren etekinen gaineko atxikipenak (-% 36,6), kapital higiezinaren etekinen gaineko atxikipenak (-% 2,6) eta sarien gaineko karga berezia; azken hori dela-eta bildutakoa 0,5 milioira erori da, aurreko ekitaldiko 4,1 milioietatik. Aitzitik, gora egin dute lan-etekinen gaineko atxikipenek (% 5,5), ondare-irabazien gaineko atxikipenek (% 25,9) eta lanbide-, enpresa- edo arte-jardueren ordainketa zatikatuek (% 26,3). Bestalde, kuota diferentzialak 2,0 milioiko emaitza positiboa izan du; aurreko urteko emaitza ere positiboa izan zen, baina 5,7 milioi eurokoa.

#### b) Sozietateen gaineko zerga

Sozietateen kuota diferentzialak % 8,9 galdu du, 7,7 milioi euroan geratu delarik; iazkoa, berriz, 8,4 milioi euro izan zen. Bildutako zenbateko gordinak % 6,1eko jaitsiera izan du, eta itzulketen bolumena (0,9 milioi) % 29,1en gehitu da. Aurreko epigrafean aipatu diren gainerako zergak kontuan hartuta, zergaren zioz bildutakoa % 18,2n gutxitu da; izan ere, 2021eko otsailera arte lortutakoa 52,4 milioi izan zen, ekitaldi honetan bildutakoa, berriz, 42,8 milioi izan da.

#### c) Gainerako zuzeneko zergak

Gainerako zuzeneko zergetan bildu den kopuru likidoa % 71,7 gutxitu da; pasa den urteko otsailera arte, 20,8 milioi bildu ziren, eta aurreko, berriz, 5,9 milioi. Honako hauek jaitsiera izan dute: oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergak (-% 29,1), ondarearen gaineko zergak (8,7 milioi, negatiboan) eta energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga (-% 97,2); azken kasuan, 2021eko laugarren hiruhilekoan zerga eteteak (elektrizitatearen prezioaren hazkunde geldiezina arintzeko neurria) eraginda. Aitzitik, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergak gehikuntza izan du (% 46,1).

#### d) BEZa

BEZa dela-eta bildutako zenbatekoak % 38,0ko igoera nabarmena izan du, duela urtebete ez bezala, 527,3 milioi eurotik 727,7 milioi eurora igaro baita ekitaldi honetan. Bilakaera positiboa bildutako kopuru gordinaren gehikuntzaren ondorioa da: 629,8 milioi eurotik 871,9 milioi eurora igo da; itzultako kopuruak, berriz, % 40,7n gehitu dira, 144,2 milioi eurora iritsiz.

#### e) Zerga bereziak

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, % 1,6 egin du gora zerga berezien diru-bilketak; bildutako zenbateko gordina gehitu da (% 1,3) eta itzultako kopuruak gutxitu (-% 82,9). Oro bat, igo egin da alkoholen diru-bilketa (% 42,3), hidrokarburuena (% 2,5), tabako-laboreena (% 12,7)



eta garagardoarena (% 0,2), baina jaitsi egin da elektrizitatearena (-% 81,6), elektrizitatearen prezioari eusteko hartutako neurrien eraginez.

#### **f) Gainerako zeharkako zergak**

Gainerako zeharkako zergen kasuan, % 23,6ko igoera izan da, guztira. Zehazki, gehiago bildu da ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan (% 22,6 eta % 44,9, bi zerga-egitate baitira), zenbait garraiobideren gaineko zerga berezian (% 0,8), berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zergan (% 43,9) eta aseguru-primen gaineko zergan (% 28,8). Joko-jardueren gaineko zergan, aldiz, gutxiago bildu da (- % 46,4).

#### **g) Tasak eta beste sarrera batzuk**

Tasen eta beste sarrera batzuen zioz bildutakoak % 21,4ko igoera izan du; 7,7 milioi eurotik ekitaldi honetan bildutako 9,4 milioi eurora igo da. Hasteko, jokoaren gaineko tasek % 205,0ko gehikuntza izan dute, batez ere makinaren eta tresna automatikoen tasak (% 285,7) eta, neurri txikiagoan, bingo-jokoaren (0,1 milioi eurotik 0,6 milioi eurora) eta txartel eta beste apustu batzuen tasek (% 28,0) izan duten igoeraren eraginez. III. kapituluko gainerako kontzeptuei dagokienez, behera egin dute zerga-zehapenek (-% 44,2), berandutze-interesek (-% 40,6) eta premiamendu-errekarguek (-% 33,5), aitorpenak eta autolikidazioak aurkezteko eta sartzeko epeei dagokienez hartutako neurrien ondorioz.

#### **h) Estatuarekiko doikuntzak**

Arestian adierazi den bezala, apirilera arte ez dira egiten urteko lehen doikuntzak.



**TRIBUTU ITUNDUEN BILDUTAKOA.** Aurreko ekitaldiarekiko konp.  
**RECAUDACIÓN TRIBUTOS CONCERTADOS.** Comparación ej. anterior

2022

Aldiak: urtarrila-otsaila  
 Periodos: enero-febrero

( euroak / euros )

Deskribapena Descripción	Bilketa Garbia Recaudación Neta		Diferentzia Diferencia	Gehik %Incr	Bilk.Aurrek Pto.Recaud.	Bet.% %Ejec
	2022	2021				
ATXIKIPENAK NORBERE LAN-ERRENTAK / RETENCIONES RENTAS DE TRABAJO	715.637.743	678.665.340	37.072.403	5,5	3.020.000.000	23,7
ATXIKIPENAK KAPITAL HIGIAGARRIAREN ETEKINAK / RETENCIONES RDTOS CAPITAL MOBILIARIO	17.525.732	27.644.856	-10.119.134	-36,6	88.000.000	19,9
ATXIKIPENAK KAPITAL HIGIEZINAREN ETEKINAK / RETENCIONES RDTOS CAPITAL INMOBILIARIO	9.820.812	10.080.721	-259.909	-2,6	48.000.000	20,5
ONDARE IRABAZIEN GAINEKO ATXIKIPENAK / RETENCIONES GANANCIAS PATRIMONIALES	7.780.398	6.182.238	1.598.160	25,9	32.000.000	24,3
SARIEN GAINEKO KARGA BEREZIA / GRAVAMEN ESPECIAL SOBRE PREMIOS	523.488	4.079.998	-3.556.509	-87,2	25.000.000	2,1
LANBIDE, ARTE ETA ENPRESA JARDUEREN ZATIKAKO ORDAINKETAK / FRAC. ACT. PROFES. EMPRES. Y ARTIS.	20.549.462	16.265.477	4.283.986	26,3	80.000.000	25,7
PFEZ KUOTA DIFERENZIAL / CUOTA DIFERENCIAL IRPF	1.996.681	5.662.320	-3.665.638	-64,7	-11.000.000	*
<b>PFEZ GUZTIRA / TOTAL LR.P.F.</b>	<b>773.834.317</b>	<b>746.480.959</b>	<b>25.353.357</b>	<b>3,4</b>	<b>3.282.000.000</b>	<b>23,6</b>
ATXIKIPENAK KAPITAL HIGIAGARRIAREN ETEKINAK / RETENCIONES RDTOS CAPITAL MOBILIARIO	17.525.720	27.644.852	-10.119.132	-36,6	88.000.000	19,9
ATXIKIPENAK KAPITAL HIGIEZINAREN ETEKINAK / RETENCIONES RDTOS CAPITAL INMOBILIARIO	9.820.739	10.080.634	-259.896	-2,6	48.000.000	20,5
ONDARE IRABAZIEN GAINEKO ATXIKIPENAK / RETENCIONES GANANCIAS PATRIMONIALES	7.780.397	6.182.237	1.598.160	25,9	32.000.000	24,3
SOZJETATEAK KUOTA DIFERENZIALA / CUOTA DIFERENCIAL DE SOCIEDADES	7.698.316	8.447.053	-748.737	-8,9	451.000.000	1,7
BALANTZE-EGUNERATZEA / ACTUALIZACIÓN DE BALANCES						
<b>SOZJETATEAK GUZTIRA / TOTAL SOCIEDADES</b>	<b>42.825.172</b>	<b>52.354.776</b>	<b>-9.529.604</b>	<b>-18,2</b>	<b>619.000.000</b>	<b>6,9</b>
EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN GIZ / IMPUESTO S/RENDA NO RESIDENTES	4.930.446	3.374.832	1.556.613	46,1	24.300.000	20,3
ONDARETZEEN ETA DOHAINTZEN GIZ / IMPUESTO SOBRE SUCESSIONES Y DONACIONES	9.563.471	13.479.391	-3.916.920	-29,1	86.400.000	11,1
ONDAREAREN GAINEKO ZERGA / IMPUESTO SOBRE EL PATRIMONIO	-8.718.613	470.613	-9.189.226	-1.952,6	82.000.000	*
KREDITU ERAKUNDEETAKO GORDAILUEN GIZ / IMP.TO S/DEPOSITOS EN ENTIDADES DE CREDITO					17.300.000	
ENERGIA ELEKTRIKOAREN EKOIZPENAREN GIZ / IMP.TO S/PRODUCCIÓN ENERGIA ELÉCTRICA	95.113	3.449.942	-3.354.829	-97,2	20.000.000	0,5
IRALINGITAKO ZUZENENKO ZERGAK / IMPUESTOS EXTINGUIDOS DIRECTOS						
<b>BESTELAKO ZUZENENKO ZERGAK GUZTIRA / TOTAL RESTO IMPUESTOS DIRECTOS</b>	<b>5.870.417</b>	<b>20.774.778</b>	<b>-14.904.361</b>	<b>-71,7</b>	<b>230.000.000</b>	<b>2,6</b>
<b>ZUZENENKO ZERGAK GUZTIRA / TOTAL IMPUESTOS DIRECTOS</b>	<b>822.529.906</b>	<b>821.610.514</b>	<b>919.392</b>	<b>0,1</b>	<b>4.131.000.000</b>	<b>19,9</b>
BEZ- KUDEAKETA PROPIOA / IVA GESTIÓN PROPIA	727.721.061	527.271.490	200.449.571	38,0	2.069.013.400	35,2
EKARPENEN LEGEAREN ARABERAKO BEZ-DOIKUNTZA / IVA AJUSTE LEY APORTACIONES						
ONDARE ESKUALDAKETEN GIZ / IMP.TO. TRANSMISIONES PATRIMONIALES	13.174.126	10.742.328	2.431.797	22,6	92.000.000	14,3
EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUTEN GIZ / IMP.TO. ACTOS JURIDICOS DOCUMENTADOS	4.129.747	2.849.838	1.279.909	44,9	19.500.000	11,1
GARRAIBIDE JAKIN BATZUEN GIZ / IMP.TO. S/DETERMINADOS MEDIOS TRANSPORTE	1.682.262	1.668.242	14.010	0,8	12.000.000	14,0
ZERGA BEREZIAK- KUDEAKETA PROPIOA / IMP.TOS. ESPECIALES GESTIÓN PROPIA						
ALKOHOL ETA EDARI ALKOHOLDUNAK / ALCOHOL Y BEBIDAS DERIVADAS	32.063	22.524	9.539	42,3	1.873.963	1,7
TARTEKO EKOIZKINAK / PRODUCTOS INTERMEDIOS	440	18	422	2,286	141.637	0,3
HIDROKARBUROAK / HIDROCARBUROS						
Barne eragileetak(tasa autonomikoa salbu) / Op. interiores(excl.Tipo autonómico)	201.708.805	196.747.549	4.961.256	2,5	793.642.500	25,4
Tasa autonomikoa / Tipo autonómico						
TABAKO LANAK / LABORES DE TABACO	25.492.648	22.611.826	2.880.722	12,7	171.326.000	14,9
GAGARDOA / CERVEZA	15.188	15.159	28	0,2	1.007.800	1,5
ELEKTRIZITATEA / ELECTRICIDAD	946.988	5.151.403	-4.204.415	-81,6	24.691.100	3,8
HIDROKARBURUEN TXIKIZKAKO SALMENTEN GIZ / IMP.TO S/VENTAS MINORISTAS HIDROCARBUROS	634	-13.441	12.806	95,3	*	
ASEGURU PRIMEN GAINEKO ZERGA / IMP.TO. S/PRIMAS DE SEGUROS	11.381.216	8.834.233	2.546.983	28,8	52.000.000	21,9
JOKU JARDUERAREN GAINEKO ZERGA / IMP.TO. S/ ACTIVIDADES DE JUEGO	509.021	950.303	-441.283	-46,4	4.500.000	11,3
BEROTEGI-EFEKTUKO GAS FLUORADUEN GIZ / IMP.TO. S/GASES FLUORADOS EFECTO INVERNADERO	498.375	346.301	152.075	43,9	1.300.000	38,3
IRALINGITAKO ZEHARKAKO ZERGAK / IMPUESTOS EXTINGUIDOS INDIRECTOS						
<b>ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA / TOTAL IMPUESTOS INDIRECTOS</b>	<b>987.291.196</b>	<b>777.197.774</b>	<b>210.093.422</b>	<b>27,0</b>	<b>3.242.996.400</b>	<b>30,4</b>
JOKO TASAK / TASAS DE JUEGO						
BINGO / BINGO	554.105	135.912	418.193	307,7	1.200.000	46,2
MAKINA ETA APARATU AUTOMATIKOAK / MÁQUINAS Y APARATOS AUTOMÁTICOS	4.491.322	1.164.467	3.326.856	285,7	20.000.000	22,5
TXARTELAK ETA BESTELAKO APUSTUAK / BOLETOS Y OTRAS APUESTAS	780.936	609.877	171.059	28,0	3.200.000	24,4
<b>JOKO-TASAK GUZTIRA / TOTAL TASAS DE JUEGO</b>	<b>5.826.363</b>	<b>1.910.256</b>	<b>3.916.107</b>	<b>205,0</b>	<b>24.400.000</b>	<b>23,9</b>
PREMIAMENDU ERREKARGIA / RECARGOS DE PREMIO	1.326.171	1.994.724	-668.553	-33,5	12.000.000	11,1
BERANDUTZA KORRIUTUAK / INTERESES DE DEMORA	1.364.929	2.297.817	-932.888	-40,6	17.300.000	7,9
ZEHAPENAK / SANCIONES	838.810	1.502.448	-663.638	-44,2	13.000.000	6,5
<b>TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA / TOTAL TASAS Y OTROS INGRESOS</b>	<b>9.356.273</b>	<b>7.705.245</b>	<b>1.651.029</b>	<b>21,4</b>	<b>66.700.000</b>	<b>14,0</b>
<b>ESTATUAREKIN ITUNDUTAKO TRIBUTUAK GUZTIRA DOIKUNTZARIK GABE / TOTAL TRIBUTOS CONCERTADOS SIN AJUSTES ESTADO</b>	<b>1.819.177.375</b>	<b>1.606.513.532</b>	<b>212.663.843</b>	<b>13,2</b>	<b>7.440.696.400</b>	<b>24,4</b>
BEZ- DOIKUNTZAK / AJUSTES IVA						
BEZ INPORTAZIOAK / IVA IMPORTACIONES					685.304.000	
BEZ BARRUKO ERAGIKETAK / IVA OPERACIONES INTERIORES					372.886.000	
<b>BEZ DOIKUNTZAK GUZTIRA / TOTAL AJUSTES I.V.A.</b>					<b>1.058.190.000</b>	
ZERGA BEREZIAK DOIKUNTZA / AJUSTE IMPUESTOS ESPECIALES						
ALKOHOL ETA TARTEKO EKOIZKINEN GIZ.B. DOIKUNTZAK / AJUSTES IMP. S/ALCOHOL Y PROD. INTERMEDIOS					95.741	
INPORTAZIOAK / IMPORTACIONES					23.179.400	
BARRUKO ERAGIKETAK / OPERACIONES INTERIORES					10.078	
HIDROKARBUREN GIZ.B. DOIKUNTZA / AJUSTES IMP. S/HIDROCARBUROS					-250.438.300	*
INPORTAZIOAK / IMPORTACIONES						
BARRUKO ERAGIKETAK / OPERACIONES INTERIORES						
TASA AUTONOMIKOA / TIPO AUTONÓMICO					15.620.900	
TABAKO LANEN GIZ.B. DOIKUNTZA / AJUSTES IMP. S/LABORES DE TABACO						
BARRUKO ERAGIKETAK / OPERACIONES INTERIORES						
GAGARDOAREN GIZ.B. DOIKUNTZA / AJUSTES IMP. S/LA CERVEZA					131.014	
INPORTAZIOAK / IMPORTACIONES					10.884.240	
BARRUKO ERAGIKETAK / OPERACIONES INTERIORES						
<b>ZERGA BEREZIAK DOIKUNTZAK GUZTIRA / TOTAL AJUSTES IMPUESTOS ESPECIALES</b>					<b>-200.516.927</b>	<b>*</b>
<b>ZERGA ITUNDUAK GUZTIRA / TOTAL TRIBUTOS CONCERTADOS</b>	<b>1.819.177.375</b>	<b>1.606.513.532</b>	<b>212.663.843</b>	<b>13,2</b>	<b>8.298.366.473</b>	<b>21,9</b>

\* Garrantzi txikia / Ratio no significativo